



**EBAZPENA, 2023KO MAIATZAREN 29KOA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ LANPOSTU HUTSAK BETETZEKO BITARTEKOEI ETA MUGAGABE EZ-FINKOEI IKASTETXEEN URTEKO ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA EZARTZEN DEN, ORDEZKARITZARA ATXIKITAKO FISIOTERAPEUTA, OKUPAZIO-TERAPEUTA ETA ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETEEN KATEGORIETAN.**

2019ko ekainaren 4ko Aginduaren bidez, Hezkuntzako sailburuarena, lanpostuaren adjudikazioa arautzen zaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta ezartzen da lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan (hemendik aurrera, Agindua).

Aginduaren III. Kapituluaren 20. artikuluan ezartzen denez, Berritzeguneetara esleituta ez dauden zeinu-hizkuntzako interprete, terapeuta okupazional, fisioterapeuta eta transkribatzaile edo materialaren egokitzzailearen kategorietako langileei zentroa esleitzeko prozedura bat ezarri ahalko da Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez.

Aurreko guztia kontuan hartuta, ebazpen hau ematen da, lanpostu hutsak betetzeko bitartekoei eta mugagabe ez-finkoei ikastetxeen urteko esleipena egiteko prozedura ezartzeko, ordezkaritzara atxikitako fisioterapeuta, okupazio-terapeuta eta zeinu-hizkuntzako interpreteen kategorietan, horien lanpostuak hezkuntza ordezkarietara atxikita baitaude.

Horregatik guztiagatik,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.- Ikastetxeen urteko esleipena lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua duten langileei edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa dutenei, fisioterapeuten, okupazio-terapeuten eta zeinu-hizkuntzako interpreteen kategorietan.**

1.- Ikastetxeak langile finkoek betetzen dituzten lanpostuen artean esleitu ondoren, bete gabe geratzen diren ikastetxeak lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratua duten eta mugagabe ez-finkoa duten langileen artean esleituko dira.

2.- Lurralde-barruti bereko lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua duten langileen edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa dutenen artean ikastetxea edo ikastetxeak esleitzean, honako hauek bete beharko dira:

a) Hezkuntzako ordezkarietako Hezkuntza Berrikuntzarako Lurralde Zerbitzuak ikastetxeetan egindako lanaren banaketa, hezkuntza-premia berezien aholkularitzekin lankidetzan.

b) Ikasleei arreta emateko behar den hizkuntza-eskakizuna, ikasketak egiten dituzten modeloaren arabera.

Hizkuntza-eskakizuna ez duten lanpostua betetzen daudenek 1. hizkuntza-eskakizuneko eta derrigortasun-datarik gabeko beharrak eskuratuko dituzte.

HLEA hizkuntza-eskakizuna duten lanpostua betetzen daudenek bakarrik HLEA



hizkuntza-eskakizuna duten beharretarako sarrera izango dute.

c) Kontratatutako pertsonaren lanaldia.

3.- Lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten langileen artean, kontratu-motak edo lan-harremanak ez du inolako lehentasunik emango.

4.- Esleipena, ahal dela, kategoria eta lurralde-barruti bereko lanpostuak betetzen dituzten arteko adostasunez egingo da. Adostasuna dagoela ulertuko da eraginpeko langile guztiek adostasuna ematen dutenean.

Adostutako esleipena bideraezina dela ulertzen bada, modu arrazoituan baztertuko da.

Adostasunik ez badago, langile bakoitzak bere borondatez aukeratuko du zer ikastetxetan/ibilbidean banatu diren bete beharreko beharrak, eta, betiere, aurreko 2. paragrafoan aipatzen diren eta nahitaez bete beharrekoak diren alderdiak errespetatuko dira.

Hurrenkera aukeratzeko, lehentasun-ordena honi jarraituko zaio:

- 1) Egonkortasuna zentroan/ibilbidean (antzinatasun handiagoa ikastetxean/ibilbidean).
- 2) Hezkuntza Bereziko langileen artean antzinatasun handiagoa izatea. Hau da, Sail honi dagokion kategoriako zerbitzuak emateari dagokion puntuaziorik handienaren arabera ordenatuko da 2022ko martxoaren 6ra arte. Hau da, ez da zerbitzurik zenbatzen ikastetxe pribatuetan, ezta beste administrazio publiko batzuen mendeko zentro publikoetan ere.
- 3) Izen-abizenen alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako zozketa bidez urtero ezartzen den letraren hurrenkera, zeina aplikagarria baita Hezkuntza Saileko langile-hautagaien deialdietan eta hautaketa-prozesuetan.

### **Bigarrena. Parte-hartzaileen zerrenda eta eskaintako lanpostuak.**

A eranskinean argitaratuko da zeinu-hizkuntzako interpreteen, okupazio-terapeuten eta fisioterapeuten parte-hartzaileen zerrenda, eta parte-hartzaileen eranskin horri 2023ko maiatzaren 29tik ekainaren 2ra bitartean erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote.

Erreklamazioak idazki sinatu baten bidez aurkeztuko dira, eta helbide elektronikoa honetara bidali beharko dira: [hezk.sind@euskadi.eus](mailto:hezk.sind@euskadi.eus).

Fisioterapeutentzat eta okupazio-terapeutentzat eskaintako lanpostuen zerrenda B eranskinean dago.

Zeinu-hizkuntzako interpreteen lanpostuei dagokienez, 2023ko abuztuaren 24an argitaratuko dira. Hala ere, data hori baino lehen lanpostuak izanez gero, lehenago argitaratuko dira. Nolanahi ere, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratua duten langileek eta mugagabe ez-finkoek ikasturte osoko iraupena duen lanpostu bat aukeratu beharko dute. Soilik ikasturte osorako premiarik ez badago aukeratu ahal izango du beste iraupen bateko lanpostu bat, eta hura amaitzean beste zeregin batzuekin osatuko da.

### **Hirugarrena.- Egutegia**

Fisioterapeuten eta okupazio-terapeuten esleipena, 2023ko ekainaren 5ean egingo da.

Zeinu-hizkuntzako interpreteen esleipena, 2023ko abuztuaren 28an egingo da.

**Laugarrena.- Ebazpenak.**

Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena langile horien ikastetxeak/ibilbideak behin-behinean esleitzeko. Ebazpen horren aurka erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira.

Erreklamazioak idazki sinatu baten bidez aurkeztuko dira, eta helbide elektronikoa honetara bidali beharko dira: [hezk.sind@euskadi.eus](mailto:hezk.sind@euskadi.eus).

Erreklamazioak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariak behin betiko ebazpena emango du, eta modu berean argitaratuko da.

**Bosgarrena.- Kontratuaren ondorioak.**

Esleitutako lanpostua betetzeari ezin zaio uko egin.

Ikasturte berrian zerbitzuak ematen dituen ikastetxea/ibilbidea ez den beste batean zerbitzuak ematen dituzten langileek ikastetxearen/ibilbidearen kontratu-berritzea sinatu beharko dute.

**ERREKURTSOAK**

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 29an

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

**BLANCA GUERRERO OCEJO**